



Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Organoa eratzeko bileran onartutako adierazpena

Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Organoak –Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen politika publikoa zuzentzen duen instantzia gorenak–, eratu den egunean, eta Udalak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza ordeztuz Organo hori osatzen duten hamabi pertsonak aho batez adostu ondoren, ondoren adierazitako adierazpena onetsi du, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari parte hartzen duten eragile guztiei eta sistema hori interesatzen zaien pertsona guztiei egin nahi die adierazpen hori.

1. Gizartearen premiak eta eskariak, adibidez, euskal gizartearenak, eta batez ere, pertsona ugariren autonomia funtzional murrizketan eta familia- eta komunitate-euskarri erabilgarrian ikusitako aldaketa azkar eta sakonak direla-eta, ongizaterako funtsezkotzat jotako gizarte-zerbitzuen artean daude gure gizarte-zerbitzuak.

2. Gizarte-zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen bitartez gizarte-zerbitzuetarako eskubidea bermatzen da, eta horretaz gain, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema eratzeko eta unibertsal bihurtzeko ibilbide-orria ezartzen da, euskal administrazio publikoek eta beste hainbat eragilek lege horren aplikazioan dituzten betebeharrak finkatuz.

3. Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Organoak, eratu den egunean, erakunde publikoek eta Lege hori garatzeko eta aplikatzeko prozesuan inplikaturako gainerako eragileek egindako ahalegin handia balioetsi, aitortu eta eskertu nahi du. Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen eta Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legearen garapen eta aplikazioa ere egin diren testuinguru batean gauzatu da arestian adierazitako prozesua, eta horretaz gain, gure herrialdean eta mundu osoan krisialdi ekonomiko larriko egoera gertatu da.

4. Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Organoak dagokion eginkizuna hartzen du hemendik aurrera, hots, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema eratzeko lana sustatzeko eta haren buru izateko eginkizuna, hainbat elementu garrantzitsurekin, besteak beste, prestazioen eta zerbitzuen zorroa, erabiltzaileek zerbitzuen finantzazioan izan beharreko partaidetza, edota plan estrategikoa eta gizarte-zerbitzuen mapa eta haren memoria ekonomikoa. Betiere hori guztia finantza publikoen orekari, aurrekontu-egonkortasunari eta onbideratzeari dagokienez indarrean dagoen legedian xedatutakoari jarraiki eginez.

5. Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Organoan gauden erakundeok Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema eratzeko koordinazioa eta laguntza aldarrikatu nahi ditugu. Elkarrizketa eta adostasuna ekarri beharko lituzketen koordinazioa eta laguntza, lehenik eta behin erakundeen artean, baina horretaz gain, baita Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren ardura duten erakunde publikoen eta inplikaturako gainerako eragileen eta interesdunen artean ere.

6. Euskal administrazio publikoek azken hamarkadan gizarte-zerbitzuetara bideratu eta horietan inbertitu dituzten baliabideak

bikoiztu egin dira. Debora-tarte horretan, alabaina, diru-sarrera publikoek ez dute hain hazkunde handia izan, eta beraz, gizarte-gastuari eustea ahalbidetzeko derrigorrean egin behar izan da aurrekontu-berresleipen bat. Gizarte-gastuaren hazkundeko bide horri eustea zaila izango da erakunde arteko gogoeta-prozesurik gertatzen ez bada, administrazio publikoen finantza- eta aurrekontu-politikaren esparruan gizarte-zerbitzuetako finantzaketa –egungoa eta etorkizuneko– bermatzeko.

7. Gizarte-zerbitzuak indartzea funtsezkoa da gure gizartean, horrelako zerbitzuek gizarte-ongizateari, -kohesioari eta -kapitalari ekarpen handia egiten baitiete, eta horretaz gain, ekonomian sektore estrategikoa baitira, itzulkin ekonomiko garrantzitsuekin, enplegua sortzeko oso gaitasun handiarekin eta gure lehiakortasunerako ekarpen erabakigarriarekin. Halaber, gizarte-berrikuntza garatzeko aukera ere ematen dute, eta aukera hori hainbat alderditan irudikatu behar da, zehazki, zaintzeko modu berrietan, gizarte-zerbitzuak koordinatzeko modu berrietan, familiak eta komunitateak gizarte-alorreko esku-hartzeko prozesuetan inplikatzeko modu berrietan, kudeaketa-formula berrietan eta sistemaren gobernantza berrian, hain zuzen ere.

8. Bestalde, Gizarte Zerbitzuei buruzko gure Legeak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren ikuspegi komunitarioaren aldeko apustua egiten duela gogorarazi behar dugu. Horretarako, administrazio bakoitzaren eskumenak argi eta garbi zehaztuko direla eta horiei aurre egiteko finantzaketa nahikoa izango dela bermatzea ezinbestekoa da.

9. Testuinguru horretan, Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Organoak gizarte-zerbitzuei buruzko Legea garatzeko eta aplikatzeko

prozesua gauzatzeko konpromisoa hartzen du; gizarte-zerbitzu horiek, euskal herritarrei zuhurtziaz eta orekaz eman beharreko zerbitzuen kalitatea eta egokitasuna bermatzeaz gain, administrazio publikoei ahalbidetu behar diete une oro eta apurka-apurka benetan bete ditzaketen konpromisoak beren gain hartzea. Horregatik, gizarte-zerbitzuen esparruan gai horiei dagokienez uzten ari diren finantza-konpromisoak hartu beharko dituzte Osasun, Hezkuntza, Lan eta Etxebizitza Sistemek beren gain.

10. Azkenik, Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Organoko administrazio publikoek aitortu nahi dute gizarte-ekimenak, ekintza boluntarioak, ekonomia solidarioak eta azken batean, gizarte zibil antolatuak gizarte-zerbitzuen esparruan egiten duten lana. Lan hori gabe, ezin izango litzateke gizarte-alorreko esku-hartzerik egin, eta are gutxiago, erakunde horiek ekarritako partaidetzaren, erantzukidetasunaren, gizarteratzearen eta iraunkortasunaren balio erantsiarekin; horregatik, erakunde horiekin lankidetzan aritzeko bideak indartzeko eta hobetzeko konpromisoa hartzen dugu.

2010eko ekainaren 17an Donostian onartua

